



*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**1**

**Zein txikia jaio nintzen**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

## LEHEN UNITATE DIDAKTIKOA: “ZEIN TXIKIA JAIO NINTZEN!”

Unitate honetako helburu nagusia haur bakoitzaren historiatxo osatzea da. Lehen mailan, haurren beraren lagunak eta euren arteko harremanak izan genituen langai; oraingoan, berriz, haurra bera izango dugu langai, norbanakoaren identitate gisa eta familiari lotuta hartuta. Alderdi afektiboari begira, bakoitzaren historia aztertuz, haurren izatearen memoria eta kontzientzia landu nahi da. Haurra bera, den bezala, bere berezitasun guztiakin onartuz (*Ni horrelakoa naiz, eta zer?*) eta haurren ingurune afektibo gertuenarekin erlazioan (familia) ipinita.

**Sekuentzia tematikoa:**

- Oporretatik bueltan
- Gelaren antolaketa
- Postala
- Proiektuaren aurkezpena
  - Zer da biografia?
  - Familia, ahaidetasuna
  - Zuhaitz genealogikoa
  - Familia motak
  - Aldizkaria: Ni horrelakoa naiz
  - Haurdunaldia. Ekografiak
  - Familiatik urrun. Etorkinak

### Proiektuak:

*Ni horrelakoa naiz, eta zer?* Aldizkaritxoa.  
Autobiografia eta postalen elkartrukea.  
Gaztelaniaz egindako proiektua: *Yo soy así*.

### Ipuinak:

ARREBA TXIKI BAT DUT, ETA ZER? “Eta zer?” saila. Txiliku, Jokin Mitxelena. Elkar.  
MARKOS KANTINERA. Kuku saila. Patxi Zubizarreta, Mikel Valverde. Elkar.

## ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Hezkidetzak	Sexuaren araberako rolak. Gizartearen jarrerak.
Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Guztiok gara desberdinak. Norbere buruaren onarpena. Familia motak. Jelosiak (zeloak). Familiartekoen maitasuna eta elkarganako laguntza. Barne gatazkak. Familiatik urrun: etorkinak.

## EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Euskal tradiziozko ipuina: Ipuina: <i>On Josepe Inventatore</i> . Olerkiak: J. Ormazabal, Sarrionandia. Igarkizunak.
Musika eta gorputz motrizitatea	Euskaraz bizi, jolas abestia: Tradiziozko abestia: <i>Haurtxo txikia</i> . M. Laboa/Sarrionandia, Xirula Mirula, Kaxiano. Entzunaldia: <i>Amorosas</i> . Jesus Guridi. Bestelako abestiak.
Arte Plastikoak	<i>Kontu kontari</i> . M. Flores Kaperotxipi.

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardatzutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Irakasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\*\*\*\*\*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Osdadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango dituzte Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango dituzte baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

## TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 1. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen zerrenda	3	3	
1		Azalari behatzea	3	3	
2		Olerkia: <i>laz aurten baino txikiagoak</i>	3	3	
4		Komikia	4-5	4-5	
13		Maddalenen postala	6	6	
14		<i>Haurtxo bikia sehaskan</i>	6	6	
14		<i>Haurtxo bikia sehaskan</i>	6	6	
23		Ferminen familia	8	8	
24		Musika ikasten ari gara	9	9	
24		<i>Dantza, dantza</i>	9	9	
25		Musika ikasten ari gara: <i>Soinu naturalak eta artifizialak</i>	9	9	Musikako lan-koadernoa, 3. or
27		Musika ikasten ari gara: <i>Perolin perolan</i>	9	9	Musikako lan-koadernoa, 5. or
30		Musika ikasten ari gara: <i>Xaka xakapon</i>	9	9	Musikako lan-koadernoa, 8. or
31		Musika ikasten ari gara: <i>Olio banbolio</i>	9	9	Musikako lan-koadernoa, 9. or

32		<i>Gora gure euskara</i>	9	9	
32		<i>Gora gure euskara (letra)</i>	9	9	
33		Gurasoentzako eskutitza	10	10	
34		Maddalenen familia	10-11	10-11	
37		<i>Oroitzen zaitudanean</i>	12	12	
37		<i>Oroitzen zaitudanean</i>	12	12	
37-38		Norberaren familia	12-13	12-13	
39		Gurasoentzako eskutitza	13	13	
42		Zuhaitz genealogikoa	14-15	14-15	
46		Familia motak	16-17	16-17	
47		Familiarekin zertan aritzen gara: ingelesa	18-19	18-19	
49		Deiturak osatzen	20-21	20-21	
52		Haurdunaldiaren prozesua	22-23	22-23	
56		Olerkia	24	24	
57		Nire jaioteguna	24	24	
58		Guridiren biografia	24	24	
58		Entzunaldia: Guridiren <i>Amorosa</i>	24	24	
58		Guridiren <i>Amorosa</i>	24	24	

59		Ekografiak	24	24	Irakurgaiak, 11. or
62		Olerkia	25	25	
64		Ipuina aitzakia	26	26	
68		Kontu kontari	27	27	
68		Flores Kaperotxipi: <i>Argazkiak eta margolanak</i>	27	27	
68		Flores Kaperotxipi • Informazioa • Biografia	27	27	
69		Familian elkarri laguntzen	28	28	
71		Familiatik urrun	29	29	
72		<i>Itsasontzi baten</i>	29	29	Irakurgaiak, 17. or
74		Aurkezpenen bilduma	30	30	
75		Bueltako komikia	31	31	
77		<i>Denboraren makina</i>	31	31	
78		Sintesia	32	32	

# JARDUEREN ANALISIA

## 1. Unitate didaktikoaren azalari behatzea eta horren gaineko elkarrizketa

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Unitate didaktikoaren azala*

Urtean zehar, gai bakoitzari hasiera emateko, liburuaren azalari behatzea eta horren gaineko elkarrizketa bultzatuko ditugu, aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatzeke asmoz. Gogoratu, Tough-en hizkuntza-funtzio batzuk gogora ekar ditzakezuela, egoera eta erantzunen arabera.

Azalaren deskribapena: *Zer ikusten dugu azalean?*

Partaideak izendatzea: *Nor dira agertzen diren pertsonaiak?*

Idatzita dagoena irakurtzea eta iragartzea: *Zer jartzen du? Nor izango da, orduan, irudian agertzen den haur txikia? Zuek ba al duzue haurrak zineteneko gogorapenik?*

Arrazoiketa logikoa: *Zer-nolako gaia jorratuko duzuela uste duzue?*

## 2. Olerkia. Iaz aurten baino txikiagoak

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Idazketa-lantegia (CD-ROMa, Birraitonaren Museoa I)*

Aurten ere olerkien eta igarkizunen bilduma egitea pentsatzen baduzue, azala egiterakoan, aztertu, guztien artean, hor idatzi behar diren elementuak (izenburua, egilearen/haurren izena, ilustrazioa...).

Azalari buruzko elementuak ikasle guztien artean aztertu eta, erabakiak hartu ondoren, *Idazketa Lantegia* erabiliz, olerki- eta igarkizun-bildumarentzako azalak egin eta inprima daitezke. Egindako guztietatik aukeratu bat, gelako bildumaren azala izango dena, eta besteak ikasleen bildumak osatzeko gorde.

Bilduma osatzen hasteko eta gelako horman jartzeko, jarduerako olerkia inprimatu. Lan hori bikoteka edo bakarka egin daiteke.

Iaz aurten baino  
txikiagoak.

Datorren urtean  
handiagoak.

Sei urte eta zazpi urte,  
biziko gara hil arte.

Bizi, bizi, alai bizi,  
asko jan eta asko ikasi.

(Joxan Ormazabal)

## 3. Gelaren antolaketa

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Ikasturte hasiera honetan, beste urteetan egin izan ohi dugun bezala (ikus 1. mailako 1. unitateko gida), gela antolatzen hasiko gara hurrekin batera:

- Txokoen izenak eta objektuen errotulazioa. Txoko zuria.
- Txoko bakoitzeko arauak adostu eta idatzi.
- Urtean zehar egunero-egunero egingo ditugun ohiko ekintzen antolaketa:
  - Arduradunak
  - Albisteen txokoa
  - Olerki eta txisteen bildumak

- Eguraldia
- Bazkaria
- ...
- Gure konpositoreen txokoa.
- Artisten txokoa...

#### 4. Komikia. “Luken jaio da!”

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian*

*Materiala: Liburua, 4. eta 5. orrialdeak*

Komikia proiektuaren ardatza den historiari lotura emango dion elementua izango da. Dagoeneko haur gehienek ez dute komikia irakurtzeko arazorik izango. Halere, bakarkako irakurketa hasi aurretik, taldean behatu eta irakurri egingo dugu.

- Komikia irakurtzen hasi aurretik, izenburuaz ohartuko gara, eta historia nondik nora molda daitekeen galdetuko diegu haurrei.
- Ondoren, banaka irakurtzeko eskatuko diegu.
- Bukatzeko, elkarrizketa labur bat bultzatuko dugu, denon artean egindako hipotesiak bete diren edo ez aztertzeko.
- ...

Segidan, komikiaren hariari jarraituz, Tough-en hainbat hizkuntza-funtzio martxan ipintzen saiatuko gara.

- Zer pertsonaia agertzen dira istorio honetan?
- Nolakoak dira?
- Zein gustatuko litzaizuke izatea? Zergatik?
- Zein ez litzaizuke gustatuko izatea? Zergatik?
- Nola jakin du Ferminek Maddalenen anaia jaio dela?
- Imajinatzen al duzue zuen lagun batek anai-arreba bat izatea? Nola sentituko litzatekeela uste duzue?
- ...

#### 5. “Luken jaio da”. Ikusi nola mugitzen den!

*Lan egiteko era: Talde handian*

Komikiaren antzezpena egin baino lehen, honako ariketa hauek egin ditzakegu gorputz- eta keinu-adierazpena lantzeko:

Denon artean, haur txikiek egiten dituzten mugimenduak aztertuko ditugu:

- Jaioberriak: etzanda, geldirik, negarrez.
  - 4 hilabete: gorputza mugitu gabe, hankak eta eskuak mugitu.
  - 6 hilabete: lekutik mugitu gabe, gorputza alde batetik bestera mugitu.
  - 9 hilabete: lau hankan ibili.
  - 12 hilabete: tipi-tapa oinez.
1. Mugimendu horiek ondo jaso ondoren, jolasean hasiko gara. Irakasleak, adibidez, “9 hilabete” aipatuko du, eta haur guztiak lau hankan ibiltzen hasiko dira.
  2. Komikian gertatzen dena elkarrizketa moduan azaltzen zaigunez, egoera hori antzezteko aprobetxa dezakegu. Horretarako, haurrak talde txikitan antolatu behar dira.

Nahi izanez gero, ikasleen antzerkia irakasleak grabatu eta editatu dezake. Ondoren, webgunean zintzilikatzea komeni da, Ikasleen Txokoan, beste ikastoletako ikasleek ikusteko. Era berean, Ikasleen Txokoan zintzilikatuta dauden bideoak ikasleekin ikusi eta komentatuko dira.



## **6. Gure lagunek gauza on asko dituzte. Hitzez komunikatzeko joko kooperatiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Komikian izan dugu Maddalen eta Ferminen arteko adiskidetasuna ikusteko aukera. Urruti bizi diren arren, hainbat erataria lantzen dute adiskidetasun hori. Guk ere adiskideak baditugu, gertukoak nahiz urrutikoak. Eta ziur gaude gure lagunek gauza on asko dituztela.

Ikasle guztiek korro batean jesarri behar dute, eta txotx egingo dugu jakiteko nori egokituko zaion korroaren erdian jesartzea. Erdian esertzen denak begiak estalita izango ditu. Horrela gaudelarik, korroko ikasleek, banaka, erdian dagoenari buruzko gaitasun edo ezaugarri baikorrak aipatu beharko dituzte, hitzen bidez (Pertsona ona da, bere gauzak erabiltzen uzten digulako, korrika arin egiten duelako; ez du inoiz inor jotzen...), edo hitzik esan gabe (erdian dagoen lagunarengana hurbildu eta laztan bat eginez, edo besarkada bat emanez).

Ikasle kopurua handia izanez gero, jolasten garen aldi bakoitzean, bost edo sei ikasle besterik ez dira pasatuko korroaren erditik; besteek, beste batean izango dute pasatzeko aukera. Garrantzitsutat jotzen dugu esperientzia hori ikasle guztiek bizi izatea.

Jolasean hasi aurretik, ikasleei tartetxo bat emango diegu erdian dagoenaren gaitasun onei buruz hausnar dezaten.

Ikasle askori, hasieran, errazago zaie erdian dagoenari buruz pentsatzen dutena hitzez adieraztea baino ekintza baten bidez egitea (besarkada...). Gaitasunak adierazteko orduan ere, ugariagoak izaten dira psikikoarekin zerikusia dutenak adieraztea baino fisikoarekin zerikusia dutenak azaltzea.

Behin gelako kide guztiekin txanda osoa egin ondoren, hurrengo txandan ikasleei esango diegu, gaitasun edo ezaugarri psikologikoak adierazten saiatu behar dutela (bihotz onekoa da, lagun handia da...).

Bukatzerakoan, beti bezala, elkarriketa bultzatuko dugu, esperientzia eta sentimenduei buruz mintzatzeko.

## **7. Ipuina: ARREBA TXIKI BAT DUT, ETA ZER?**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Familia batean haur berri bat jaiotzen denean edo kanpotik ekartzen denean, zenbaitetan, gertaera hori arazo bilakatzen da anai-arreba zaharragoentzat. Jelosiak direla eta ez direla, haurrek adierazpen (edota isilune) bat baino gehiago izaten dituzte, eta onuragarria gertatzen zaie gai horietaz hitz egitea, bereziki egoera hori jasaten ari direnei. Komikia erabil dezakegu gai horri buruz elkarriketa bideratzeko, baina J. M. Olaizola “Txiliku”k idatzitako *Arreba txiki bat dut, eta zer?* (“Eta zer?” saila. Txiliku, Jokin Mitxelena. Elkar) ipuinak ere gaia zuzen-zuzenean eta oso era egokian lantzen du. Ipuina hurrei irakurtzea aholkatzen dizuegu eta, ondoren, Tough-en hizkuntza-funtzioak erabiliz, sentipen horiei buruzko elkarriketa egin dezazuen ere bai.

## **8. Oporren inguruko elkarriketa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Oporretako bizipenak gogoratzeko eta lagunei kontatu ahal izateko, elkarriketa bideratuko dugu:

Ferminen Vianan pasa ditu oporrak eta Maddalen aitona-amonen baserrian egon da.

- Zuek non izan zarete oporretan? Norekin ibili zarete?
- Egon zareten lekua polita al zen?
- Non zegoen, kostaldean ala mendialdean?
- Nola joan zineten, autoz, autobusez, hegazkinez, itsasontziz...?
- Gustura al zaudete berriro ere ikastolan hasita? Zergatik?
- Zuen ustez, zer alde on ditu oporretan egoteak? Eta berriro ikastolan hasteak?
- Nola sentitzen zarete? Zein zaudete pozik?
- Eta triste?...?

Elkarrizketa bukatu ondoren, nahi izanez gero, horren inguruko jardueraren bat antola dezakezue: oporretako bilduma bat, horma-irudia, argazkien erakusketa... edota, hurrengo jarduerarekin gozatu ondoren, imajinazioarekin bidaiatu ondoren, gure marrazkien bilduma osatu.

## **9. Nola joan zineten oporretara?**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Aurreko proposamenean, bidaiaria egiteko zenbait era aipatu ditugu (autoz, autobusez, hegazkinez, itsasontziz...). Baina, irudimena erabiliz, bidaiatzeko beste era batzuk ere asma ditzakegu:

Esate baterako:   Dortoka baten gainean  
                           Hanka bakarrean  
                           Denboraren Makinan  
                           Balea baten sabelean  
                           etab.

Neska-mutilen irudimena pizten saiatuko gara.

Ondoren, horrela bidaiatzeko egin behar diren mugimenduak asmatuko ditugu eta egingo, “kamera geldia”-ren teknika erabiliz.

Nahi izanez gero, ikasleen mugimenduak irakasleak grabatu eta edita ditzake, ondoren, webgunean zintzilikatzeko, Ikasleen Txokoan, beste ikastoletako ikasleek ikusi ditzaten.

Era berean, Ikasleen Txokoan zintzilikatuta dauden bideoak ikasleekin ikusi eta komentatu, irudimena lantzen jarraitzeko.

## **10. Imajinazioarekin bidaiatuz, gure gorputza irudikatuz...**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

Haur bakoitzari Nortasun Agiriaren neurriko bere argazkiaren fotokopia emango diogu. Irudimenaren bidez bidaiatzeko gehien gustatu zaion era aukera dezan eskatuko diogu haurrari, eta bere burua, argazkitik moztutakoa, paperean itsatsi, eta bere gorputza eta aukeratu duen bidaiatzeko era marraztu eta margotzeko eskatuko diogu. Hondoan ere osatzen badu, hobe. Lan horri bukaera emateko, izenburu edo hitz-joko bat jar diezaion eskatuko diogu. Nahi izanez gero, haurrek ipinitako hitz-joko horiek guztiak asmatzen jolas gaitezke.

## 11. Lan-koadernoko hasierako olerkia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: 3. lan-koadernoan, 3. orrialdea; CD-ROMa*

Lan-koadernoan aurkituko duzuen olerkia bakarka irakurri ondoren, bakoitzak bere izena eta deiturak idazteko eskatuko diegu. Bukatzeko, guztion artean berriro irakurri egingo dugu.

Olerki horrek duen erritmoa eta hitzen arteko jolasa eredutzat ere har dezakegu, guztion artean olerkitxo batzuk asmatzeko/imitatzeko. Nahikoa litzateke pare bat lerrokoak edo laukoak osatzea.

Markatu erritmoak, bilatu errimak, jolastu hitz ezagunekin. Ez dugu beste munduko “marabilarik” behar. Adibidez:

*Tan, tan, tan,  
berriro lan eta lan.*

*Ton, ton eta ton,  
ez da festarik Lekeition.*

*Tin, tin, tin,  
beti festan Lapurdin.*

Talde handian asmatutako olerkitxoak, gelako hormak apaintzeko edota ikasleek etxera eramanez, Birraitonaren Museoa I CD-ROMeko Idazketa Lantegietako batean formatu digitalean berridatzi eta inprimatu daitezke.

## 12. Bertsoa

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 4. eta 5. orrialdeak*

Irakurgaien liburuari ere bertso honen bidez emango diogu hasiera. Bertsoa irakurri eta doinu ezagun batekin abestu ondoren (Batetikan korrotxka, Bizkaiko aberatsak...), beste jarduera batzuk egin ditzakegu: errimari erreparatu, bukaera berdinarekin bururaten zaizkigun hitzen zerrenda osatu, oinak kendu eta bertsoa berrosatu...

## 13. Maddalenen postala

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 6. orrialdea*

Iazko azken unitatean, oporretan lagun bati postalen bat idazteko proposamena haurrei luzatu genenez, haren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu, norbaitek idatzi duen jakiteko eta, idatzi badu, nori, nondik eta zer kontatzeko idatzi duen jabetzeko.

Klipearekin agertzen zaigun azalpen-testua irakurri ondoren, eta 7. orrialdean agertzen den postalaren analisia egin aurretik, Maddalenek idatzitako postala taldean aztertu, behatu eta irakurri egingo dugu.

#### **14. Tradiziozko abestia: Haurtxo txikia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Maddalenek anaia txikia izan du. Eta postalean dioenez, negartia omen da. Ziur ez duela gauetan batere lo egiten! Orain ikasi behar dugun abestia haur txikiak lokartzeko erabiltzen da.

Haurtxo txikia sehaskan dago  
zapi txurietan txit bero.  
Amonak dio: “Ene, potxolo,  
egin agudo lo, lo”.

“Txakur handia etorriko da  
zuk ez baduzu egiten lo”.  
“Horregatikan, ene potxolo,  
arren egizu, lo, lo”.

#### **15. Irakurzaletasuna bultzatuz**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 6. eta 7. orrialdeak*

Dagoeneko gela antolatuta izango dugu eta baita aurten ere garrantzi handia emango diogun liburutegiko txokoa.

Komenigarria dela iruditzen zaigu txoko horretan ditugun liburu guztiak sailkatuta edukitzea, haurrek gustuko dituzten liburuak erraz identifika ditzaten. Horretarako, egun batean, liburutegian ditugun liburuen sailen aurkezpena egin dezakegu taldearen aurrean, beraiek garbi jakin dezaten zer-nolako liburuak ditugun.

Gelako liburuen aurkezpena egin ondoren, irakurgaietara joko dugu, haurrak erronka baten aurrean ipiniz: binaka jarri eta ea gai diren asmatzeko zein den irakurgaietako seigarren orrialdean agertzen den haur bakoitzari gehien gustatzen zaion ipuin saila. Binakako azterketa bukatzen dutenean, talde handian irakurriko dugu berriro eta emaitza aztertuko dugu.

Gogora ezazue, iaz liburutegirako maskota bat egitea proposatu genizuela. Aurten ere maskota harekin jarrai dezakezue edota berri bat egin, izena jarri eta bizitza eman guztion artean. Berria egin nahi izanez gero, ados jarri beharko dugu erabakitzeke nola egin eta zer forma eduki behar duen. Maskota horri bizitza emateko, txotxongilo bihurtu behar dugu. Ez ahaztu maskota hori ikasturte guztian zehar erabil dezakegula.

Beste era batera egin nahi izanez gero, “liburujale ezkutua” ere asma dezakegu. Ez du inork inoiz ikusiko, baina, bere arrastoak (irakaslea da horren arduradun) noiznahi aurkituko ditugu (astean behin, behintzat bai) gure liburutegian (liburuak lapurtu, sailak nahastu, liburu berri bat lazo eta guzti utzi, gutunak utzi, oinatzak gelan utzi eta bukaeran sorpresatxoak ipini, idazleren bat gelara gonbidatu, ilustratzaile bati gelara etortzeko deitu, kazetari bat gelara gonbidatu...).

Fantasiako pertsonaia hori garrantzi handikoa izan daiteke eta oso baliagarria neska-mutilen irudimena lantzeko. Horrek ere ikasturte osoan lan egin dezake. Irakasleari, agian, hasieran, fantasiako pertsonaia hori asmatzea eta berari nortasuna ematea kostatuko zaio, baina gero, neska-mutilak eta liburujalea bera izango dira pertsonaiaren bultzatzaile onenak.

# Gaztelaniako proiektua

## Aldizkaria egiteko material osagarria

### Yo soy así

#### Observamos la portada

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Aldizkariaren azala*

Unitate guztien hasieran, euskarazko jardueretan egiten genuen bezala, hemen ere, aurreikuspen estrategiak lantzeko eta hizkuntza-funtzio batzuk martxan ipintzeko elkarrizketa eragingo dugu. Gogoratu Tough-en hizkuntza-funtzioak martxan jar ditzakezuela (Contar las experiencias basándonos en las vividas anteriormente. Razonamiento lógico. Predecir, Proyectar e Imaginar diferentes situaciones), egoeren, beharriaren edo ikasleen erantzunen arabera.

- *Leemos lo que está escrito en la portada: ¿Qué nos pregunta Curro?*
- *Predecir y asociar ideas: ¿Por qué creéis que Curro nos pregunta quiénes somos a estas alturas? A lo mejor durante el verano se le ha olvidado... ¿Dónde y qué habrá estado haciendo Curro este verano? ¿Con quién?*
- *Imaginar: Vamos a imaginar por un momento que somos Curro. ¿Qué querríais realmente saber acerca de nosotros?*
- *Predecir: ¿Sobre qué tema creéis que vamos a hablar estos días?*
- *Razonamiento lógico: Aparte del nombre y los apellidos, ¿qué más cosas le podríamos decir a otra persona para que nos conociera mejor?*

#### Me dibujo y me presento. “Hola, yo soy...”

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Aldizkariaren azala*

Haur bakoitzak bere marrazkia egin beharko du eta, moztu ondoren, aldizkariaren azalean itsatsi. Bidaia imajinarioa (10. jarduera) egiteko norberaren Nortasun Agiriaren argazkia eman ez badiegu, oraintxe dugu berriro aukera. Eman badiegu, beren burua irudikatu beharko lukete (gorputz osoa), baina gustuko duen zaletasun bat praktikatzen ari direla. Hasi aurretik, ondo pentsatu, eta itsasteko duten espazioa nola kalkulatu behar dugun guztion artean eztabaidatuko dugu. Azpian, berriz, bakoitzak bere izena eta bi deitura idatzi beharko ditu.

Goian aipatutako marrazkia eskas samarra gera daitekeela pentsatzen baduzue, kartulina batean adierazpen aberatsagoa egin dezaketela uste dugu; hau da: zaletasun gehiago adierazi, gustuak (jateko orduan, janzteko orduan, jolasteko, irakurtzeko orduan...).

Hurrek, banan-banan, beren aurkezpena egin beharko dute taldearen aurrean: nor den, nolakoa den (deskripzio fisikoa, izaera), zer-nolako gustuak dituen...

Horretarako, deskripzio fisikoari nahiz izaerari loturiko izen eta adjektiboak landu eta eskainiko dizkiegu hurrei. Ordena jakin bati jarraitu behar zaiola ere adierazi (goitik beherakoa, normalean), eta ordena horren arabera, gorputz-atalak arbelean idatziko ditugu. Ondoren, atal bakoitzaren inguruko adjektibo batzuk idatziko ditugu (antonimoak erabil ditzakegu: largo, corto).

## Ésta es mi familia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Aldizkariaren 2. eta 3. orrialdeak*

Currok familia aurkezteko eskatzen die hurrei. Gurasoen eta anai-arreben izenak eta adinak idazteko eskatzen zaie, eta hori aprobetxatuz, zenbakiak ehun arte landuko ditugu. Bi orrialde horietan familiako gurasoak, aitona-amonak, anai-arrebak, osaba-izebak eta lehengusuak agertzen direnez, bertan eskatzen zaizkien datuak bete, eta euskaraz landu genuenaren antzeko jarduera bat gaztelaniaz ere landu dezakegu:

- *¿Quién es la madre de mi madre?*
- *¿Y el hermano de mi padre?*
- *¿Y la hija de la hermana de mi madre?*
- *¿Y el hijo de mi abuelo?*
- ...

## Cuento: Hansel eta Gretel

*Lan egiteko era: Talde handian*

Hansel eta Gretelen ipuina kontatuko diegu hurrei eta, segidan, elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *¿Por qué crees que los padres de Hansel y Gretel les abandonan en el bosque?*
- *¿Creéis que vuestros padres os abandonarían?*
- *¿Alguna vez os habéis perdido en la playa, en la calle? ¿Qué sentisteis cuando vuestros padres os encontraron?*
- *Si no os ha pasado nunca, ¿podéis imaginar cómo os sentiríais?*
- ...

## Mi colegio

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Aldizkariaren 4. orrialdea*

Aurkezpena egin eta familiarreko pertsonak ezagutu ondoren, ikastolako datuak eskatuko dizkiegu.

Ikastolaren eta herriaren izena jarri ondoren, bai/ez jolasaren bidez, hurrek adierazi beharko dute laukian agertzen diren zerbitzuak ikastolan dituzten ala ez.

Segidan, ikastolaren inguruko hiztegia eta ahoz lantzeko jokoren bat antola dezakegu:

- *Vamos a escribir en la pizarra todos los servicios que tenemos: biblioteca, gimnasio, secretaría, clases, vestuarios...*
- *¿Para qué sirve la biblioteca?*
- *¿Y los vestuarios?*
- ...

Ondoren, hurrek gela edo areto baten funtzioa zein den adieraziko dute banan-banan, edo areto horretan zer egiten den edo nor egoten den. Binaka ipini daitezke, eta zer gelaz ari den asmatu beharko dio batek bestari. Adib: *Sirve para hacer gimnasia, hay muchos libros y solemos ir a leer, hay una persona que coge el teléfono...*

### **Canción: En la puerta del colegio**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Abesti tradizional honen musika ez badakizue, olerki modura irakur diezaiekezue.

*En la puerta del colegio,  
ocairí, ocairá,  
ha caído una paloma,  
ocairí, ocairá,  
con un letrero que dice,  
ocairí, ocairá,  
¡Viva nuestra directora!  
Ocairá, ocairá,  
ocairí, airí airá.*

### **Lo que más me gusta/Lo que menos me gusta**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Aldizkariaren 5. orrialdea*

Ikastolari buruz hitz egin dugu, zer-nolako zerbitzuak dituen, zertarako balio duten zerbitzu horiek... Oraingo honetan, haurrek idatziz agertu beharko dute gehien eta gutxien gustatzen zaiena, aurretik ahoz landu ondoren.

### **La clase**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Aldizkariaren 6. orrialdea*

Orrialde honetan, gelan dagoen haurren kopurua, irakaslearen izena eta gainerako irakasleen izenak idatzi beharko dituzte.

Ulermena lantzeko, ahozko buruketa-jolas bat proposatuko diegu:

*En mi clase estábamos 13 niñas y 12 niños, pero Maddi y Martxel se fueron a vivir a otro pueblo. Cuando me enteré, me puse un poco triste, pero cuando la profesora nos dijo que iban a venir dos niños gemelos y una niña que se llama Irati, me alegré un poquito. Por cierto, ¿cuántos niños y niñas seremos ahora en clase?*

Ondoren, gelako irakasle bakoitzak duen eginkizunaren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu:

- *¿Qué hacéis con el profesor/la profesora de gimnasia?*
- *¿Qué es lo que más te gusta? ¿Y lo que menos?*
- *¿Y con el/la de inglés?*
- ...

### **Mis amigos**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Aldizkariaren 7. orrialdea*

Haurrek, bere lagun minena zein den idatzi ondoren, lagun horrekin elkartzen direnean zer-nolako ekintzak egiten dituzten idatziz zehaztu beharko dute, binaka jarrita; edota, bere buruarengan konfiantza edukiz gero, banaka ere egin dezakete. Hori guztia lehenik ahoz landuko dugu.

## **Jugamos a saltar con la cuerda**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian*

Oharra: Era honetako jolasak oso egokiak dira hizkuntza poliki-poliki barneratzeko, baina beste arazo bat sor dezakete, hau da: gure hurrek jolastokian euskaraz jolas daitezen saiatzen ari gara behin eta berriro, eta guk era honetako ereduak ematean, hurrek gelaz kanpo aplikatzen has daitezke. Beraz, zuen ingurua ongi aztertu, jolas-ohiturei behatu eta horren baitan har ezazue erabakia.

Haurren izenak aipatzen jolastuko gara sokasaltoan. Segidan azaldutako jolasa antola dezakegu, hau da, leku bat aukeratu eta saltoan ibili ondoren, puntu horretara korrika joan beharko dute hurrek berriro ilaran jartzera.

*El nombre de Maria,  
¿qué cinco letras tiene?:  
La M,  
La A,  
La R,  
La I,  
La A.  
¡Ma-rí-a!*

*El nombre de Eneko,  
¿qué cinco letras tiene?:  
La E,  
La N,  
La E...*

## **Poesía: ¿Cómo te llamas?**

*Lan egiteko era: Talde handian  
Materiala: Aldizkariaren 8. orrialdea*

Gloria Fuertesen olerkia taldean irakurri ondoren, bertan agertzen diren izenekin jolasten hasiko gara.

- *¿Qué os parece si nosotros también jugamos a inventar pareados con los nombres que aparecen en la poesía?*
- *Empecemos... ¿Si te llamas Mariana?... Come una manzana.*
- *¿Si te llamas Enriqueta?... Comprate una raqueta.*
- *¿Si te llamas Pacorro?... Ven y juega al corro.*

Ariketa hau gelako haurren izenekin ere egin dezakegu.

## **Trabalenguas: Pedro Pero Pérez Crespo**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

Izenekin jolasten ari garenez, Pedro Pero Pérez Cresporen aho-korapiloa landuko dugu. Hasteko, lasai irakurriko dugu, eta, pixkanaka, buruz ikasten saiatuko gara, ondoren bizkor-bizkor esaten saiatzeko.

- ¿Dónde mora/vive Pedro Pero Pérez Crespo?
- Hay tres Pedro Pero Pérez Crespo por aquí:  
el Pedro Pero Pérez Crespo de arriba,  
el Pedro Pero Pérez Crespo de abajo  
y el Pedro Pero Pérez Crespo de allí.
- Pues no busco al Pedro Pero Pérez Crespo de arriba,  
ni al Pedro pero Pérez Crespo de abajo,  
ni al Pedro Pero Pérez Crespo de allí.  
Busco al Pedro Pero Pérez Crespo Crespín,  
que tenía una yegua y un rocín,  
crespa la cola, crespa la crin,  
y todo él un potriquin.



## 16. Postala aztertzen

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 7. orrialdea*

Ikusten al duzue postaletan helbidea nola jartzen den? Lehenengo, hartzailearen izen-deiturak ipintzen dira; ondoren, kalea, zenbakia eta pisua; segidan, posta-kodea eta herria eta azkenik, herrialdea.

- Eta ba al dakizue non jartzen den?
- Gogoratzen al zarete eskutizetan non eta nola idazten zen?
- Desberdintasunik ba al dago bien artean? Zein?
- Nola jakin dezakegu postal batean igorlea zein den? Eta eskutiz batean?
- ...

Elkarrizketa hau bideratu ondoren, postalaren analisia egingo dugu:

- Zer zati ikusten ditugun.
- Data zertarako eta non jartzen dugun.
- Diosala zertarako erabiltzen den aztertu. Diosala egiteko moduak idatzi.
- Mezuan zer zati bereiz ditzakegun:
- Non gauden.
- Norekin gauden.
- Zertan ari garen eta nola gauden.
- Zer berri kontatu nahi dugun.
- Sinadura zertarako jartzen den. Nola idazten den.
- Izen-deiturak eta helbidea non eta nola idazten den.

## 17. Postala osatu

*Lan egiteko eramota: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 3. lan-koadernoak, 4. eta 5. orrialdeak*

Haurrak postal batean agertzen diren esaldiak ordenatu gabe aurkituko ditu eta, lehen landutako eskemaren arabera (data, diosala, mezua –non, norekin, zertan eta nola, berriak–, agurra, sinadura eta helbidea), ordenatu egin beharko ditu eskuinaldeko orrialdean agertzen den postalean.

## 18. Datak nola idatzi

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Lan koadernoak, 6. orrialdea*

Datak ondo idazten ikasteko, goialdean agertzen diren bi ereduak behatuko diegu, eta egin behar dutena ondo argituta utziko dugu taldean. Ondoren, herria, urtea, hilabetea eta eguna agertzen diren multzoetako datuak erabiliz, hainbat data osatu beharko dituzte hurrek.

## **19. Idatz dezagun postal bat**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian*

Maddalenek idatzitakoa irakurri eta postalak idazteko eskema landu ondoren, beraien lagun edota familiako bati postal bat idazteko proposamena luzatuko diegu.

Horretarako, lehenik, euskarria beharko dugu, eta hori lortzeko, aukera bat baino gehiago ditugu (egin, erosi...). Aberatsena, noski, haurrak berak ilustratutako postala bidaltzea litzateke. Kalkulatu neurria, eta eman kartulina zurrin samar bat. Bertan marrazten edo pintatzen hasi aurretik, aurre-diseinu bat egiteko eskatuko diegu paper arruntan. Hainbat teknika erabil ditzakezue: arkatza, errotulagailua, argizaria edota tenpera..., argazki edota beste materialez egindako kollageak (gogoratu gutxieneko zihurtasunez bidali ahal izateko, lau samarra izan behar duela).

Postalaren beste aldearen atalak ere guztien artean aztertu, eta espazioak arkatzez markatzeakomeni da, idazterakoan gauza bakoitza bere tokian joan dadin. Horrelako prozesuetan, lan handia eskatzeaz gain, zenbaitetan emaitzak ez dira erositakoaren gainean idatzitakoak bezain "txukunak". Baina, hala eta guztiz ere, prozesuak duen balioa (emaitzaren gainekoa gure ustetan) azpimarratu nahi genuke kasu hauetan. Gainera, merkatuan dauden postalak ere askotan ez dira oso zoragarriak!

Postalean zuzenean idatzi beharrean, orri batean idazteko eskatuko diegu hasieran. Orrian idatzi ondoren, idatzitakoa taldean irakurri eta landu dugun eskemara inguratzen den edo ez aztertuko dugu.

Segidan, hiruko/lauko taldeak osatuko ditugu eta haur bakoitzak idatzitakoa beren artean zuzendu eta hobetzeko eskatuko diegu.

Taldean zuzendu eta idatzitakoa postalean kopiatu ondoren, zigilua jarri eta postontzira botako ditugu (aurretik nori idatzi nahi dioten pentsa dezatela eta helbidea eskura dezatela).

## **20. Liburujaleari ere idatz dezaigun beste postal bat**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Denon artean postal bat idatziko diogu liburujaleari. Horretarako, bere zuzenbidea eta zer esan asmatuko dugu. Pixka bat xaxatzea komeni zaigu ea hurrengoan neurrian erantzuten digun!

## **21. Proiektua**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Unitatearen bukaeran egingo dugun proiektua agertuko diegu hurrei, hau da, bakoitzak bere biografia aztertu eta idatzi ondoren, beste ikastolako haur batzuekin eskutitzak elkar trukatzeko proposamena. Noski, horretarako, biografia zer den argitu beharko dugu lehenik.

Haur Hezkuntzan beste talde batekin harremana izan bazenuten, talde bera edo beste bat izan daiteke. Inoiz ez baduzue beste ikastola batekin harremanik izan, maila bereko beste ikastolako irakasle batekin hitz egin eta eskutitzak elkar trukatzeko modua bideratu beharko duzue.

## 22. Elkarrizketa. Zer da pertsona baten biografia? Eta autobiografia?

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Txiki-txikitatik artisten eta musika konpositoreen biografiak entzun eta irakurri dituztenez, suposa dezakegu, pertsona baten “biografia” zer den badakitela gutxi gorabehera. Guk galderak (biografia eta autobiografia zer diren) egingo ditugu, eta bakoitzari beren hitzekin adierazteko eskatuko diogu.

Hurrek hipotesiak egin ondoren, nahi izanez gero, hiztegiara jo eta bertako definizioa irakur dezakegu. Hiztegiko definizioa irakurri ondoren, beraiek esan dutena eta hiztegian datorrena ea bat datorren ikusiko dugu. Lehen unitateari dagokion material osagarrian, hiztegiaren orria aurkituko duzu. Estreinatzeo aukera izan daiteke hori. Galde dezakezue hiztegiko hitzen ordenaz ea zer pentsatzen duten ere:

- Zer azalduko da lehenago hiztegian, biografia hitza ala autobiografia hitza?
- Zergatik pentsatzen duzu(e) hori?

Oraindik gai horren inguruan aurre-kontzeptu okerrak edukitzeko adinean daude haurrak; beraz, errespetuz entzun iritzi guztiak eta horien argudio edo zergatiak (adibidez, biografia lehenago, motzagoa delako), eta irakasleak denon aurrean hiztegian egiaztatu ondoren, alfabeto-ordenaz hitz egin. Gai hori sistematikoki hirugarren mailan landuko badute ere, era horretako hausnarketak egiteko aukerarik ez genuke inoiz galdu behar.

## 23. Ferminen familia

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Liburua, 8. orrialdea*

Ferminen globoan dioena irakurriko dugu eta, segidan, bere familia ezagutzeari ekingo diogu. Hurrek argazkiaren azpialdean agertzen den testua irakurri ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu denon artean, Ferminen familiaren zuhaitz genealogikoa arbelean osatzeko. Galderak errazago erantzuteko, liburuan irakurtzeko aukera emango diegu haurrei.

- *Ea nor gogoratzen den Ferminen aitak zer izen duen. Eta amak?*
- *Ba al dakizue Ferminen gurasoak zein diren? Horiek zer dira Ferminentzat?*
- *Eta zein dira amaren aldeko aitona-amonak?*
- *Zein dira aitona Fulgencio eta amona Kontxitaren seme-alabak?*
- *Eta aitona Ramon eta amona Esperen bi alabak?*
- *Norekin dago ezkontuta izeba Tere?*
- *Ba al dakizue zer izen duten Ferminen lehengusuek?*

Ferminen familiaren zuhaitza arbelean osatu ondoren, ahaidetasuna lantzen has gaitzke. Horretarako, “ezetz asmatu?” jokoia egin dezakegu edota antzekoren bat.

- *Ezetz asmatu, ezetz asmatu... nor den Ferminen lehengusu zaharrena?*
- *Ezetz asmatu, ezetz asmatu... zer den izeba Tere Ferminen amarentzat?*
- ...

Bukatzeko, argazki-oinean agertzen den testua erabiliz, beste jarduera bat egiteko aukera duzue, hau da, pertsonaia bakoitzaren adinari erreparatuz, Ferminen familiakoak zaharretik gazteenera edota alderantziz ordena ditzakezue.

## **24. Musika**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Liburua, 9. orrialdea/CDa; CD-ROMa*

Orrialde honetan agertzen den abestiaren letra irakurri ondoren, abestia ikasiko dugu eta, proposamenak dioen bezala, gelako objektuak erabiliz, denon artean dantza bat asmatuko dugu.

Abestia eta dantza landu eta gero, bideokamera digitalarekin grabatu eta editatu daiteke. Ondoren, ikusi, entzun eta komentatu.

Grabaketa webgunean zintzilikatu, Ikasleen Txokoa, beste ikastoletako haurrek ikus dezaten. Eta txoko horretan zintzilikatutako beste bideo batzuk ikusi eta komentatu.

## **Musikako lan-koadernoa**

### **25. Soinu naturalak eta artifizialak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 3. orrialdea, 1.1. fitxa/Jardueren CDa*

CDan sei soinu agertzen dira. Denon artean, beste zerrenda bat idatziko dugu arbelean, gaiari buruzko hausnarketa bat egin ondoren.

### **26. Ni neu neronika**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 4. orrialdea, 1.2. fitxa*

Lehenik, eskemen irakurketa egingo dugu. Ondoren, gure gorputz-atalak musika-tresna bihurtuz, eskemak soinu jantziko ditugu. Lehenengo ariketan, txaloak eta kraskinolak agertzen zaizkigu. Jakina da adin hauetan ez dela erraza kraskinolei soinu egokia ateraraztea. Ez dio axola handirik. Garrantzitsuena erritmoa sentitzea da. Bigarren eskeman, txaloak eta ahotsa erabiliko ditugu. Ahotsaren txanda heltzen denean, bokal bat, silaba bat edo onomatopeia bat aukeratuko dugu.

Gogoan izan komenigarria dela antzeko ariketak sortzea.

### **27. Perolin perolan**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 5. orrialdea, 1.3. fitxa/Jardueren CDa*

Iragan ikasturtean landutako solfeoaren errepasso soila da fitxa hau. Bi notaz osaturiko melodia arrunta eta erraza. Irudien sekuentzia aztertu eta entzun ondoren, musika alorreko grafiara pasatuko gara, hau da, danbor handien eta txikien ordeztasunak, beltzak eta kortxeak idaztera. Melodia entzun ondoren, solfeatu egingo dugu. Azken urratsa melodia bertso batez janztea izango da. Horrela, melodia eta hitzak egoki elkartuz, kantua sortuko dugu.

### **28. Musikarien txokoa**

*Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoa, 6. orrialdea, 1.4. fitxa*

Musikarien txokoa deitzen diogun orrialde honen helburuetako bat zaborretara botatzen ditugun hainbat materialen berrerabilpena ere bada. Beste helburuetako bat kontsumismoaren aurrean jarrera kritikoa izatea da. Erraza da marakak erostea, eta gelan ere izango ditugu, ziurrenik, baina ez al da politagoa geuk egitea?

Esperimentazioaren garrantzia ere aipatu behar da: Nola aterarazi soinua egin dugun tresnari? Fitxan era bat proposatzen da, baina ikasleek asmatuko dute beste eraren bat. Garbantzua aleak ere proposatzen dira, baina beste hainbat gauza erabil ditzakegu: dilistak, arroza, harri-txintxarrak, gauza desberdinak nahasian...

### **29. Zazpi desberdintasunak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 7. orrialdea, 1.5. fitxa*

Musika idaztea erraza dela dirudi, eta hala omen da, arretaz jokatzuz gero. Baina guk bi pentagramen kopia egin dugu. Ez dugu arreta gehiegirik ipini eta, ondorioz, zenbait hutsegite egin ditugu. Ea aurkitzen dituzun.

### **30. Xaka xakapon**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 8. orrialdea, 1.6. fitxa/Jardueren CDa*

Iragan ikasturte amaieran hiru notaz osaturiko abestitxoak irakurtzen ikasi genuen. Hona hemen nota berdina erabiliz (Sol, La eta Mi) sortu dugun beste melodia bat. Gogoan izan komenigarria dela antzeko ariketak sortzea.

### **31. Letrek ere bere musika dute**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Musikako lan-koadernoak, 9. orrialdea, 1.7. fitxa, Jardueren CDa*

Erdialdean dauden "hitzak" aukeratu eta zein marrazkiri ipiniko genizkiokeen pentsatu. Marrazkien musikak zein liritekeen irudika daitezke, eta hitzak aukeratu.

#### **OLIO BANBOLIO**

Dantzatzuz, erritmoa lantzeko ariketa. Erritmo-eskema: beltza - beltza - kortxea - kortxea - beltza.

Garrantzitsua da dantza bat irakatsi nahi dugunean, lehen-lehenik erritmo-eskema ongi barneratzea. Ahotsez: dan - dan - di-lin - dan. Gero, hainbat gorput-atal erabiliz.

Dantza honek bi eskema ditu, eta nahiz eta bi eskemek erritmo bera izan, mugimendu desberdinak egingo ditugu. (Ikus Xixupika 2, 84-85 orrialdeetako marrazkiak)

### **32. Gora gure euskara**

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: Musikako jardueren CDa*

Hona On Nemesio Etxaniz jaunak duela gizaldi erdia sorturiko kantua:

*Euskal haurrak bagoaz bizitzan aurrera,  
euskaraz ikasiaz guztiok batera.*

*Gora, gora, gora gure euskara,  
gora, gora, euskal haurrak gara.*

*Euskaldun jaio ginen eta euskaldun hazi,  
euskaldun hiltzeraino guk nahi dugu bizi.*

*Euskaraz bizi nahi dut, etxean lanean,  
euskaraz hitz eginaz mundu zabalean.*

Gogoan izan kantatzeak duen garrantzia.

### 33. Gurasoentzako eskutitza

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Unitate honetan beharrezkoak zaizkigun argazkiak inguratzeko gurasoen laguntza handia beharko dugunez, ikasturteko lehen eskutitza bidaliko diegu gurasoei Maddalen eta Ferminen izenean. Horrelako zerbait izan daiteke (argazki gehiegi iruditzen bazaizkizue, gutxiago eskatu eta, bestetik, gelako haur baten edo besteren egoera kontuan hartuz, eskaera honek arazo serioren bat suposa dezakeela iruditzen bazaizue, zehazpen gutxiagoko eskutitza bidali):

Ikasturte berri on gure laguntzaile fin eta leialok:

Ilusioz eta gogoz hasi dugu bigarren mailako ikasturte hau eta, dagoeneko, oporrez ahaztuta, hemen ari gara jo eta ke lanean zuen seme-alabekin.

Egia esatea nahi baduzue, iazko kurtsotik gelditu zaigun oroimen politenetakoa, zuek, guraso maiteok, gure bidaietan zehar eskaini zeniguten laguntza paregabea da. A zer nolako jarrera bikaina! Guk zerbait eskatu eta... da!, hurrengo egunerako gela paperez eta liburuz gainezka! Ba ote dago munduan zuek bezain guraso jatorrik?

Benoa, eta "pelota" pixka bat egin ondoren, goazen harira.

Ikasturte hasiera honetan, familiari buruzko gaia lantzen ari garenez, argazki dezente beharko ditugu liburuan eransteko. Asko direnez, zerrenda batean jarriko dizkizuegu zuen seme-alabekin batera aukera ditzazuen (horretarako arazorik baduzue, ahal duzuen bidali, eta marrazki bidez-eta konponduko gara):

Edozein neurritakoak:

- Amarena, umetan edo orain baino gazteagoa zenean egina (adierazi haurrari zenbat urte zenituen).
- Aitarena, umetan edo orain baino gazteagoa zenean egina (adierazi haurrari zenbat urte zenituen).
- Amarena, gaur egungoa.
- Aitarena, gaur egungoa.
- Zuen seme-alabarena jaioberritan.

Nortasun Agiriaren tamainakoak eta gaur egungoak:

- Aitarena
- Amarena
- Aiton-amonena
- Eta zuen seme-alabena, bakoitzarena.

Oraingo honetan nahiko lan jarri dizuegu, ezta? Proposamen gisa, asko maite duzuen argazkiren bat ikastolara ekartzeko aukeratzen baduzue eta pena asko ematen baduzue, beti duzue aukera koloretako fotokopiak bidaltzeko!

Eskerrik asko zuen laguntzagatik, eta laster arte.

Maddalen eta Fermin

Feliz curso nuevo querida familia:

Hemos empezado el nuevo curso con una gran ilusión y a estas alturas ya se nos han olvidado las vacaciones.

La verdad es que uno de los recuerdos más hermosos que nos ha quedado del curso anterior ha sido vuestra espléndida colaboración y para que podáis hacer gala de ella, pues aquí os mandamos el siguiente trabajito.

Durante estos días, hemos empezado a estudiar la familia y la historia personal de cada un@ de vuestr@s hij@s y claro, nos sería de gran ayuda contar con algunas fotos familiares.

A modo de "sugerencia" os enviamos un listadito de lo que podéis ir buscando con vuestr@ hij@:

**Fotos de cualquier tamaño:**

- Foto de la madre, de cuando era niña o más joven que ahora (decirle al/a la niñ@ la edad aproximada.)
- Foto del padre, de cuando era niño o más joven que ahora (decirle al/a la niñ@ la edad aproximada.)
- Foto actual de la madre.
- Foto actual del padre.
- Foto de recién nacid@/de las primeras fotos de vuestr@ hij@.

**Fotos actuales de tamaño carné:**

- Del padre
- De la madre.
- De l@s abuel@os.
- De cada un@ de vuestr@s hij@s.

Si no quisierais mandar alguna foto, siempre podéis optar por las fotocopias en color.

Pensamos que como siempre responderéis con mucho empeño y por ello nos despedimos tranquilamente hasta la próxima.

Gracias.

Maddalen y Fermín.

### 34. Maddalenen familia

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 10. eta 11. orrialdeak*

Lehenago, familiako argazkitik abiatuta Ferminen zuhaitz genealogikoa osatu badugu arbelean, oraingo honetan, Maddalenen familiaren zuhaitza agertzen zaigu, bertan jartzen duena irakurri eta denon artean azter dezagun.

### 35. Ahaidetasuna

*Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka*

*Materiala: 3. lan-koadernoak, 7. orrialdea*

Liburua Maddalenen familia agertzen den orrietan zabalik utziko dugu, lan-koadernoko jarduera hau egitean hurrek errazago egin dezaten.

### **36. Norberaren familia ezagutzen: ama**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Liburua, 12. orrialdea*

Ferminen eta Maddalenen familiakoak ezagutu ditugu. Iritsi da etxetik ekarritako argazkiak erabiltzen hasteko ordua eta haur bakoitzak bere familiaren inguruko orrialdeak lantzekoa. Etxetik ekarritako umetako eta gaur egungo argazkiak itsatsi eta azpialdean agertzen diren datuak betetzen hasiko dira.

### **37. Abestia: Oroitzen zaitudanean, ama**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: CDa; CD-ROMa*

Oroitzen zaitudanean, ama...  
Sukaldean egoten zara  
mahaia bostentzat iminita.  
Aulkian eseri eta  
leihotik begira.  
Kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe.  
Eta ni –badakit–  
Zure begien hondoan nagoela.  
Sarrionandia/Mikel Laboa

Haurrekin abesti/poesia honen mezua eta esanahiari buruzko elkarriketa garatuko ditugu. Bukatzean, haur bakoitzari bere amari/aitari zer hitz esango lizkiokeen pentsatzeko eskatuko diogu. Horiek idatziz jaso ditzakete eta, apainduz gero, etxera eraman ere bai. Birraitonaren Museo I CD-ROMeko Idazketa Lantegia erabiliz, ikasleek idatzitako olerkitxoak garbian jarri eta inprimatu, ikasleek etxera eraman ditzaten.

### **38. Norberaren familia ezagutzen: aita**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Liburua, 13. orrialdea*

Amarekin egindako lan berbera egingo dugu oraingoan aitarekin ere. Etxetik ekarritako argazkiak itsatsi eta azpialdean agertzen diren datuak betetzen hasiko gara.

### **39. Olerkia**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Aitaren inguruko datuak bete ondoren, Joxan Ormazabalen olerki polit hau irakurri diezaiekezue hurrei.

Aitak esan zidan:  
“Bihotza da motorra,  
odola da  
bihotzaren gasolina,  
bero-beroa,  
gorri-gorria”.  
Nik galdetu nion aitari:  
“eta non bizi da maitasuna,  
bihotzean ala buruan?”.



Musu handi bat eman  
eta horrela erantzun zidan:  
“Maitasuna  
ez da kabitzen bihotzean,  
ez da kabitzen buruan,  
bizi da zeruan,  
bizi da munduan,  
bizi da:  
GORROTORIK EZ DAGOEN LEKUAN”.

#### **40. Amaren eta aitaren aurpegiekin jolasean**

*Lan egiteko era: Bakarka*

Gurasoen aurpegiak abiapuntu hartuta, iaz gure aurpegiekin egin genuen moduan, ikerketa plastiko polita egin dezakegu.

- Aurpegiak kalkatu. Etxetik gurasoen aurpegiak kalkatuta ekarri beharko dituzte haurrek. Kalkatzea etxeko leihoko kristal batean egin daiteke. Paper “begetala” edo forratzeko plastikoa eta errotulagailu egokiak ere behar dira. Kristalean paper edo plastiko gardena itsatsi zinta eransgarriarekin, eta alde batean, aita edo ama kokatuko da, kristaletik oso gertu eta erabakitako posizioan. Beste aldetik, haurrek gurasoen aurpegiak kalkatu beharko dituzte. Kalkatutako gurasoen aurpegiak etxetik ekartzean, ikastolan fotokopiatu eta margotzeko beharrezko diren erak erabiliz, gurasoen erretratuak osatuko ditugu. (Kristalean aurpegiak kalkatu nahi ez baditugu, gelara ekarri duten gurasoen argazkia fotokopiagailuan handitu eta hura kalka dezakezue paper gardenean).
- Etxetik ekarritako argazkiak fotokopiatu eta orriaren neurrira handituz, haurrek gurasoen aurpegiak puzzleak balira bezala osatu beharko dituzte. Gurasoen aurpegietako zatiak erabiliz, beste aurpegi dibertigarri bat ere egin dezakete eta baita amaren eta aitaren aurpegiak konbinatuz pertsonaia berriak sortu ere.
- Gurasoen argazkien fotokopiak, oraingo honetan, bertikalki eta erditik moztuta emango dizkiegu ikasleei, beraiek beste erdia margotuz osa dezaten.

#### **41. Amaren eta aitaren izenekin jolasean**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

Amaren eta aitaren izenak bertikalki idatziko ditugu, bata bestaren azpian eta bien artean tartea utzita. Letra horiek baliaturik, gurasoei dagozkien esaldiak asmatuko ditugu:

poli T a  
ner E kin ona  
i R ribarre alaia  
n E re ama

J olasten da nirekin.  
O so indartsua da.  
N ire aita da.

Izena oso luzea bada, neska-mutilek ezin dute bat-batean lan hori egin. Pixkanaka-pixkanaka, bururatzen zaienean, esaldiak osa ditzakete.

Bukatu ondoren, kartulina erabiliz eta letra onarekin idatziz, amarentzat eta aitarentzat oparitxo bat bihur daiteke.

#### **42. Zuhaitz genealogikoa**

*Lan egiteko era: Bakarka*

*Materiala: Liburua, 14. eta 15. orrialdeak*

Bi orrialde hauetan, haur bakoitzak bere zuhaitz genealogikoa egiteko eskema agertzen zaizue. Etxetik ekarritako argazkiak erabiliz, osatuz joango gara. Ikasle bakoitzak bere familia-egoerara egokitu beharko du zuhaitza.

Bestalde, erdialdean lekune bat utzi dugu norberaren familia osatzeko. Hor, gurasoen argazkien azpian, norberaren argazkia eta anai-arrebena koka daitezke.

#### **43. Familiaren inguruko igarkizunak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 8. orrialdea*

Irakurgaiak liburuan familiaren inguruko hiru igarkizun agertzen dira. Lehenengoaren erantzuna aitona, aita eta semea da, hiru pertsona izanda, bi aita eta bi seme direlako. Beste igarkizunen erantzunak ama eta aitona dira. Asmatuko ote dituzte?

#### **44. Ahaidetasunaren letra-zopa**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 3. lan-koaderno, 8. orrialdea*

Letra-zopa honetan hamabi ahaideren izenak agertzen dira.

#### **45. Ahaidetasuna. Egia/Gezurra**

*Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: 3. lan-koaderno, 9. orrialdea*

Dagoeneko hurrek ezagunak izango dituzte senitarteko gehienen izenak. Halere, orain egin behar duten jarduera hau nahiko zaila egingo zaie haur batzuei. Hori dela eta, haurrak hiru laguneko talde txikitan elkartzea proposatzen dizuegu, erantzunak denen artean aukera ditzaten.

Esaldi bakoitzak dioena egia ala gezurra den erabaki beharko dute. Ondoren, talde handian argituko dugu.

#### **46. Familia motak**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 16. eta 17. orrialdeak*

Gaur egungo gizartean, familia mota bat baino gehiago aurki ditzakegu (monoparentalak, biparental homosexualak, biparental heterosexualak, adopzioak, etab.), eta kontu handia eduki beharko dugu orokortzearekin; errespetua bultzatzen saiatu behar dugu. Ez da zaila izango gelan bertan hainbat familia motatako haurrak izatea; beraz, hurrengan eztabaida bultzatu ondoren, beraiek ezagutzen dituzten beste familia mota batzuk adierazteko aukera emango diegu. Horretarako utzi dugu lauki bat zuriz.

Familia moten inguruko eztabaidan agertzen diren iritziak idatzita jasotzen badituzue, nahi izanez gero, entzunaldia lantzerakoan proposatzen dizuegun gurasoei bidaltzeko triptiko moduko aldizkaritxoan ere txerta ditzakezue.

Adopzioaren gaiaz hitz egitea ere interesgarria suerta daiteke, gehienbat, haur adoptaturen bat baldin baduzue gelan. Eta gurasoak hilda eduki ditzaketen haurrak ere gelan topa ditzakegula kontutan hartu beharko dugu, gaia dagokion errespetu eta sentsibilitatearekin tratatzeko.

#### 47. Familiarekin zertan aritzen gara? (Ingelesa)

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 18. eta 19. orrialdeak*

WHAT DO YOU DO WITH YOUR FAMILY?

Aurreko ikasturtean bezala, Ingeleseko irakaslea ikasleen ohiko gelara etorriko da, eta Txanelarekin egiten ari direnaren berri jasoz emango dio sarrera saioari. Beraz, beti bezala, zer egiten ari diren galdetu, eta unitatea denen artean ikustea nahi duela esango die irakasleak. Unitatea esku artean dutela, eta norberaren familiaren zuhaitza aprobetxatuz, ingeleseko familiaren hiztegia aurkezteko (berrikustea izango da gehienetan) jolastxo bat egingo dugu lehenik.

Txanela liburuxka esku artean dutela, norberaren zuhaitz genealogikoari begiratuko diogu, ingelesekoarekin hasi aurretik. (14. eta 15. or.)

*So you have been working on your family trees. I want you to tell me all about it in English. But you can't all tell me at once. Let's play a game.*

*Look at your family trees.*

*Hands up if you have got two grandpas and two grandmas.*

*Stand up if you have more than four aunts and uncles.*

*Put your hands on your head if you have no brothers and sisters.*

*Put your finger on your nose if you have no brothers.*

*Point to the window if you have no sisters.*

*Hands up if you have only girl cousins.*

*Stand up if you have more than 6 cousins.*

*Etc.*

Ondoren, 18. orrialdera joan eta ingeleseko orriaren azterketari ekingo diogu.

*Look at our English page. Here's Reddy. Who's that? Urdintxo. Urdintxo is Reddy's cousin.*

*What is Reddy saying? 'I play hide and seek in the trees with my cousin Urdintxo'.*

*What do you do with your family?*

Ikasleengandik jaso familia kide desberdinekin zer egiten duten. Lagundu esaldiak osatzen.

Adibidez:

*I read stories with my grandma.*

*I play football with my uncle.*

*I ride my bike with my mum.*

*Etc.*

Nahiko ekintza eta familia kide aipatu direnean, eska iezaiezu hiru familia kide aukeratzeko eta bakoitzarekin zer egitea gustatuko litzaiekeen pentsatzeko. Bere burua eta aukeratutako familia kideak marraz ditzatela eskatuko diegu ekintza horretan ari direlarik.

Marrazten ari diren bitartean, haurren inguruan ibiltzea komeni da, irudiak goraipatuz eta zer irudikatzen duten galdetuz. Marrazkia bukatzen dutenean, anima itzazu zertan eta norekin ari diren idazten. Liburuan esaldiaren egitura eskaintzen zaie: I... with my ... Familia kideen hitzak orrian bertan dituzte eredu bezala. Ekintzak idazteko, bakoitzari ahal duena era librean idazten utz diezaiokezu (idazketa lantzea ez da gure helburua jarduera honetan, oinarrizko hiztegia lantzea eta ahozko lana garatzea baizik).

Ikasleek bukatzen dutenean, aurkez ditzatela haien marrazkiak talde txikitan. Zuk zeuk egindako marrazki bat prest eduki eta hura deskribatuz eredia eskaini. Adibidez:

*This is me and this is my grandpa. I play cards with my grandpa.*

#### **48. Nire familiaren erretratua**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Ahal baduzue eskura itzazue familien erretratuak (argazkiak nahiz pinturak) eta, ezertan hasi aurretik, argitu zer den erretratua. Ondoren, esan hurrei egun batzuetan bere familiako partaideei behatzeko. Zein den altuena, hurrengo... Nolakoak diren, ilea, begiak, janzkera... eta nahikoa behatu dietela pentsatzen dutenean, bere familiaren erretratua egiteko (etxean nahiz ikastolan hasita). Erretratuaren hondoa ere landu dezakezue.

Etxeko erretratuen aurkezpena ikusi ikasleekin, eta emandako ereduak aztertu.

Irakasleak, ikasleek ekarritako argazkiak eskanerlean pasatu ondoren, eredu gisa ematen zaion aurkezpena osa dezake.

#### **49. Deiturak osatzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 20. eta 21. orrialdeak*

Bi orrialdeotan agertzen diren pausoei jarraituz, haur bakoitzak bere zortzi deitura zein diren jakingo du. Ipar Euskal Herrian jarduera hau egiterik ez duzue izango, baina hego Euskal Herrian erabiltzen den sistema "bitxia" aurkezteko erabil dezakezue. Gelako haurren deiturekin jokatzuz, deitura askoko pertsonaia bat imajinatuz ere lan egin dezakezue.

Kontuan hartu behar dugu, deiturak hartzeko era ez dela berdina munduko herrialde guztietan; beraz, atzerritarren bat gelan edukiz gero, jakin beharko duzue nola hartzen dituen berak deiturak. Euskal Herriko hegoaldeko kasuan gerta daiteke haurren batzuk lehen deitura amarengandik jasotzea eta datu hori kontuan hartu behar izatea gero beren zortzi deiturak osatzerakoan. Horregatik komeni da hasieran galdetzea norengandik jasotzen duten lehen deitura eta norengandik bigarrena.

#### **50. Pertsonaia misteriotsuak**

*Lan egiteko era: Bakarka/Binaka*

*Materiala: 3. lan-koadernoan, 10. orrialdea*

Deiturak nola hartzen ditugun ikasi ondoren, lan-koadernoan agertzen zaizkigun bi pertsonaia misteriotsu hauen izen-deiturak asmatu beharko dituzte haurrek.

#### **51. Aldizkaria: "Ni horrelakoxea naiz"**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Haur bakoitzaren material osagarriko lehen sei orrialdeak hartzen baditugu eta erdian grapa bat jartzen badiegu, unitatea bukatu bitartean egingo dugun "Ni horrelakoxea naiz, eta zer?" aldizkaritxo osatuko dugu.

Izen-deiturekin lanean jardun dugun honetan, aldizkaria egiten hasiko gara. Zuek ikusi nola eta zer erritmotan egingo duten. Gure proposamena honako hauze litzateke: hasteko, azala eta lehenengo bi orrialdeak egin, geroago aldizkariarekin jarraitzea proposatuko baitizuegu.

Izenburuari erreparatu.

*Zergatik jartzen ote du "eta zer?"?*

*Guztiok berdinak al gara?*

Ezizenaren inguruan ere elkarriketatxoak bultzatuko dugu. Azpimarratu gustuko ez duten ezizena ez dela inoiz erabili behar, etab.

## 52. Haurdunaldiaren prozesua

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*  
*Materiala: Liburua, 22. eta 23. orrialdeak*

Bi orrialdeotan haurdunaldiaren prozesua agertzen da lau marrazkitan. Haurrek argazkiak eta testua elkartu beharko dituzte prozesu osoa ordenan irakurtzeko.

## 53. Olerkia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*  
*Materiala: Irakurgaiak 2, 9. orrialdea*

Haurrak olerkia banaka irakurtzen hasi aurretik, ez litzateke txarra izango zuek taldeari irakurtzea eta bertan agertzen diren metaforen inguruan elkarrizketa bultzatzea.

## 54. Ipuin tradizionala. Ahate itsusia

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

Lehen ere entzunda izango duten ipuin hau egoki deritzogu gai honetan berriro entzutea/irakurtzea. Batetik, familiaren eta jaiotzaren gaia azaltzen zaigulako eta bestetik, desberdina izateak zenbaitetan sor ditzakeen arazoak eta injustiziak agerian jartzen dituelako.

Ipuin honi dagozkion testua eta laminak (beste aukera batzuen artean, jakina) Urtxintxa 5 urteko materialean aurki ditzakezue. Horrez gain, haur bakoitzak etxean eduki dezake ipuin bera –bost urterekin erabili baitzuen– eta ikastolara ekar dezake liburutegian eskura edukitzeko. Bestetik, talde-antzerkia egin nahiko bazenute, Urtxintxa 5 urteko irakaslearen gidan duzue testua egokituta.

Ipuin hau dela eta, txikitik entzun zituzten bi bertsioren bukaerak ekarri nahi ditugu gogora, politak baitira:

*ITSUSIA IZAN ALA POLITA*  
*DENOK DAUKAGU BURUA LEPOARI JOSITA.*

\*\*\*

*ZER DA ITSUSIA?*  
*BESTEIA EZIN IKUSIA!*

*Urdintxo arrautzari begira zegoen bere seme-alabatxoak noiz jaioko zain. Ikusi dugun bezala, pertsonok ez gara arrautzetatik jaiotzen, ugaztunak baikara, baina ahateak eta beltzargak bai. Ezagutzen al duzue “Ahate itsusiaren” ipuina? Bai, ezta? Bada, entzun eta gogoratu!*

Antzerkia egitea erabakitzen badugu, antzezenak bideokamera digitalarekin graba daitezke; editatu ondoren, Ikasleen Txokoan zintzilika daitezke, beste ikastoletakoek ikusteko. Hala, antzezenak alderatzeko aukera izango genuke.

## 55. Txisteak

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*  
*Materiala: Irakurgaiak 2, 10. orrialdea*

Hona hemen gaiarekin lotura duten eta hurrei hainbeste gustatzen zaizkien txiste batzuk. Irakurri eta argitu ondoren, dakizkiten txiste batzuk guztiei kontatzeko eskatuko diegu hurrei.

Askotan, neska-mutilek kontatzen dituzten txisteak ez dira ulergarriak izaten, oso baxu edo oso azkar kontatzen dituztelako, esan gabekoak jakintzat emanez edo ondo ahoskatu gabe. Pixkanaka aho-adierazpena landuz, ulertzen ez dena galdera bidez edota beste era batera zuzenaraziz saiatu behar dugu euren adierazkortasuna hobetzen.

## 56. Gurasoentzako gutuna

*Lan egiteko era: Talde handian*

Laster, haurrek beren jaiotegunari buruzko datu batzuk beharko dituztenez, gutuntxo bat bidaliko diegu gurasoei, etxean haurra jaio zen egunari buruz hitz egin dezaten eta zenbat pisatu zuen eta zenbat neurtu zuen, etab. Haurrari esan diezaioten. Hainbat haurren kasuan, informazio hori jaso gabe baldin badute (adopzioak, etab.), oinarritzko datu batzuk lortzen saiatzeko adieraziko zaie gurasoei. Komenigarria da gutun hau egokitzea gela bakoitzeko egoeraren arabera.

**Guraso maiteok:**

Dakizuen bezala, familiari buruzko gaia lantzen ari gara, eta zuek bidalitako argazkiei esker oso liburu polita gelditzen ari zaigu. Eskerrik asko.

Laster, zuen haurrak bere jaiotegunari buruz lantxo bat egin beharko duenez, lau lerro hauen bidez etxean egun zoriotsu hari buruz hitz egiteko eskatzen dizuegu, eta, jakina, baita non jaio zen, zenbat pisatu zuen, zenbat neurtu zuen eta gogoan dituzuen xehetasun guztiak hari kontatzeko ere.

Etxean egiteko lan polita da, ezta?

Laster arte.

Maddalen eta Fermin

\*\*\*\*\*

Querid@s colaborador@s:

Como sabéis estamos trabajando el tema de la familia y la historia personal de cada niñ@ y gracias a vuestra colaboración nos está quedando precioso el libro. ¡ Gracias!

Puesto que dentro de poco vuestr@ hij@ va a hacer un trabajito a cerca de su nacimiento, nos gustaría que hablarais en casa a cerca de aquel felicísimo día y le contéis anécdotas de sus primeros días así como los detalles referentes a su peso, talla y demás.

¡No digáis que el trabajo no es bonito!

Agradeciéndoos de antemano vuestra preciadísima colaboración, nos despedimos con un abrazote.

Maddalen y Fermín.

## 57. Nire jaioteguna

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Liburua, 24. orrialdea*

Etiketrik ekarritako jaioberritako argazkia itsatsi ondoren, azpian agertzen diren datuak beteko dituzte.

Nahi izanez gero, jarduera batzuk antola ditzakezue pisuarekin eta neurriarekin:

- *Jaiotzerakoan, zeinek pisatzen zuen gehien, zeinek gutxien.*
- *Zeinek neurtzen zuen gehien, zeinek gutxien.*
- *Erlaziorik ba al du gaur egungo egoerarekin?*
- ...

## 58. Entzunaldia. “Amorosas”, Jesus Guridi

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Oraingo honetan entzungo dugun musika Jesus Guridi konpositore arabarraren “Diez melodías vascas” obraren 6. melodia izango da: “Amorosas”.

Ezertan hasi aurretik, Guridiren biografia irakurri eta “Gure konpositoreen txokoan” itsatsiko dugu, bere argazkiaren ondoan.

**Guridi Bidaola, Jesus.** Musikari arabarra (Gasteiz, 1886 - Madril, 1961). Hamar urterekin musika-konposizio laburrak idazten hasi zen eta hamahirurekin bere obrez osatutako pianorako kontzertu bat eskaini zuen Bilbon. Piano, harmonia, kontrapuntu, organo, konposizio eta abarreko ikasketak Bilbon egin ondoren Parisera joan zen. Bilbora itzuli eta musika-irakasle, zenbait musika-taldetako zuzendari, organo-jotzaile eta konpositore izan zen. Bere lanetan eragin frantsesa eta alemaniarra izan zuen (batez ere Wagner-ena). Kontzertuak, lan sinfonikoak, operak, zartzuelak, musika korala, organoko piezak, etab. konposatu zituen. Zalantzarik gabe, ospe eta sona handiena izan duen lana *Amaia* opera izan zen.

Biografia landu ondoren, musika entzuten dugun bitartean, ideia honen inguruko historiatxo bisualizatzeko eskatuko diegu: orain dela minutu batzuk jaio zara eta zure amak besoetan hartu eta goxo-goxo bere magalean hartu zaitu. Zer sentitzen duzu zuk? Zer sentitzen du amak? Aita ere ondoan dago eta berak ere besarkatu nahi zaitu. Imajinatu, musika entzuten duzun bitartean, jaioberritan pasa dituzun lehen lau minutu direla eta sentitu zenbat maite zaituzten zure gurasoek.

Entzunaldia bukatzean, elkarrizketa bat proposatuko diegu, sentitu dutena adierazteko: poztasuna, tristura, melankolia..., gustura egon diren ala ez, zer esango zien gurasoei bere jaiotzaren unea gogoratu ondoren...

## 59. Ekografia. Azalpen testua

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 11. orrialdea*

Irakurgaietan agertzen den azalpen-testura jo aurretik, hurrei galdetuko diegu ea dakiten zer den ekografia bat eta zertarako erabiltzen den.

Ondoren, irakurgaien liburuan agertzen den testua irakurriko dugu.

### **60. “Ni horrelakoxea naiz” aldizkaria**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Jaiotegunaren gainean lan egin ondoren, aldizkaritxoarekin jarraituko dugu. Oraingo honetan, gure proposamena 4. orrialdetik 12. orrialderaino egitea izango litzateke. Norberaren eta besteen ezaugarri fisikoen onarpena litzateke azpimarragarriena orrialde hauetan.

### **61. Kirol Txartela**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka*

*Materiala: 3. lan-koaderno, 11. orrialdea*

Gure datuak behar izaten ditugu hainbat agiri eskuratu ahal izateko, adibidez, Kirol Txartela. Goiko testuan agertzen diren datuak erabiliz, beheko kirol txartela osatu beharko dute haurrek. Lanean hasi aurretik, finkatu oso ondo egin beharrekoa eta erabaki ezazue guztien artean hutsune bakoitzean zer idatzi behar den. Ondoren, bakarka edo binaka, saia daitezelaosatzen eta, bukaeran, guztien artean zuzen dezatela.

### **62. Olerkia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 25. orrialdea*

Hankabakarrean zenbat segundo egoten diren probatu ondoren, Joxan Ormazabalen olerkia irakurriko dugu.

### **63. Ipuina: On Josepe inventatore**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 12. orrialdetik 15.era*

On Josepe inventatore pertsonaiaren beste pasadizo bat irakurtzeko aukera dugu. Iaz egiten genuen moduan, ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatu eta ipuinari buruzko hipotesiak egiteko eskatuko diegu haurrei. Ipuinaren lehen orrialdea irakurri ondoren, gertatutakoaren inguruko galderaren bat eta aurrerago zer gertatuko ote denari buruz hipotesi gehiago egiteko eskatuko diegu. Eskema hori orrialde bakoitza hasterakoan erabiliko dugu, galderen bidez haurrek irakurritakoa jasotzen laguntzeko eta istorioan gertatzen denaren inguruko motibazioa edukitzeko. Beste une batean, haurrei ipuina bakarka irakurtzen saia daitezten denbora eskaini.

### **64. Ipuina aitzakia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 26. orrialdea*

Taldean ipuinari buruzko galderak eztabaidatu ondoren, azpialdean adierazi beharko dute gurasoekin zer antza duten eta desberdinak zertan diren.

Haurrei alde fisikoan bakarrik ez gelditzeko proposamena egingo diegu, eta izaeran, portatzeko eran, amonak esaten dituen gauzetan, etabarretan ere arreta ipintzeko eskatuko diegu.



## **65. “Ni horrelakoxea naiz” aldizkaria**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Material osagarria*

Aldizkaria osatzen jarraitzeko aukera duzue berriro. Familiakoekin antza zertan duten eta desberdinak zertan diren landu ondoren, aldizkaritxoak bukatuko dugu beste ezaugarri batzuk kontuan harturik (izaera, ohiturak, zaletasunak...).

## **66. Ipuina: Markos kantinera.** (Patxi Zubizarreta, Mikel Valverde. Kuku saila. Elkar)

*Lan egiteko era: Talde handian*

Talde handian ipuina irakurri/entzun ondoren, elkarrizketa bideratuko dugu hurrengo gaiak hizpide:

- Sexismoa. Rolak bereizketa.
- Ezberdina izatearen ideia.
- Barneko gatazka.
- Gizartearen eragina gai jakin batzuen inguruan: zuzendariaren jarrera, familiaren erreakzioak istorioaren hainbat unetan...

Gogoratu era horretako hausnarketak egiten ditugunean, IDEAL prozeduraren hainbat atal lantzen ari garela: arazoa identifikatu, arazoa definitu, estrategien inguruko balorazioa, aritzearen edo ekintzaren balorazioa eta lorpenen ebaluazioa.

Bestetik egoera honek arazoa orokortzeko aukera ere eskaintzen digu, hau da, era horretako gertaerak edo arazoak non gehiagotan, zein egoeratan sortzen diren edo sor daitezkeen eta horien konponbidearen inguruan hausnartzeko parada izan dezakegu.

## **67. Biografia txiki bat**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 3. lan-koaderno, 12. orrialdea*

Oraingo honetan, lehen egin dugun ariketaren kontrakoa proposatuko diegu haurrei, hau da, Kirol Txartelaren datuetatik abiatuta, aurkezpen txiki bat idaztea. Laster, bakoitzaren aurkezpena prestatu behar dutenez, ez zaie batere gaizki etorriko eredu desberdinak ikustea.

## **68. Artelana. M. Flores Kaperotxipi: “Kontu kontari”**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Liburua, 27. orrialdea*

Mauricio Flores Kaperotxiopiren “Kontu kontari” margoa aukeratu dugu gai honetarako artelan bezala.

1.901eko maiatzaren 10ean Zarautzen jaiotako artista honek urte luzeak pasa behar izan zituen etxetik kanpo, Argentinan, Espainiako gerra zibila zela tarteko. Gazte zelarik, eragin handia jaso zuen margotzeko estiloan Ignazio Zuloaga margolari zumaiarrarengandik.

Liburuan dugun koadroa eszena kostunbrista bat da, eta era bukolikoan tratatzen ditu bai pertsonaiak eta baita paisaia ere. Hor azaltzen diren elementu guztiak idealizatuta daude eta baita egoera ere. Aitona ez da edozein aitona, baizik eta “Aitona”, etab... Argiaren eta kolorearen trataera samur eta orekatuak eszenari ematen dioten tonu intimista hori ere begibistan daukagu.

Bere koadro guztietan bezala, figuren presentzia erabatekoa da eta ia beraiek hartzen dute koadroaren espazio guztia, margolaria erretratista aparta izan zela erakutsiz.

## **69. Familian elkarri laguntzen**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 28. orrialdea*

Famili harremanen ezaugarri nagusietako bat kideek elkarri ematen dioten laguntza da. Zertan, ordea? Haurrek erantzun bat baino gehiago emango dituzte, eta geuk osatuko dugu esaten ez dutena. Zenbat eta zenbat eguneroko arazo konpontzen zaizkigun familiari esker! Alderdi horiei buruzko hausnarketa txiki bat egingo dugu taldean eta, ondoren, haurrek bakarka beren koadroa bete beharko dute. Bukaeran, erantzundakoari buruzko elkarrizketa txiki bat egin dezakegu denok batera.

## **70. Berria. Etorkinak**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 16. orrialdea*

Irakurgaietan jarri dugun berri honen asmoa zera litzateke: familia utzi eta bizi-baldintza hobegoen bila beste herrialde batzuetara joaten diren beraien adineko haurrak badaudela ezagutaraztea.

Berria irakurri ondoren, haur horien larruan sartzeko eskatuko diegu, eta zer sentituko duten imajinatzeko.

## **71. Familiatik urrun**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian*

*Materiala: Liburua, 29. orrialdea*

Etorkinen berria irakurri eta elkarrizketa egin ondoren, liburuan agertzen diren galderak erantzun beharko dituzte haurrek. Segidan, taldetan banatu, eta egoera nola konpon daitekeen aztertu beharko dute. Interesgarria litzateke haurrek konturatzea orain etorkinak Euskal Herrira lan- eta bizi-baldintza hobegoen bila datozen bezala, beste garai batzuetan, hemengo jendea izan zela munduko beste lurraldeetara joan zena lan- eta bizi-baldintza duin batzuen bila.

## **72. Abestia: Itsasontzi baten**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Irakurgaiak 2, 17. orrialdea, CDa*

Kaxianoren abestia irakurri ondoren, buruz ikasten saiatuko gara.

## **73. Biografia ordenatu**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: 3. lan-koadernoan, 13. orrialdea*

Beste ikastola bateko haurrei bidaltzeko bakoitzak bere aurkezpena egin aurretik, beste biografia baten eredia eskaini nahi izan diogu haurrari. Kasu honetan, Miguel Indurainen biografiatxo aukeratu dugu. Lan-koadernoan desordenan agertzen dena ordenatu egin beharko dute zenbakien bidez.

#### **74. Gelako haurren aurkezpenen bilduma**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Liburua, 30. orrialdea/Material osagarria*

Material osagarrian duten aurkezpena, helbidea eta telefono-zenbakia idazteko orria hartu eta haur bakoitzak bere biografiatxoa/aurkezpena idazteari ekingo dio.

Ikastolako fitxan dituzuen argazkien fotokopiak aterako ditugu, bakoitzak aurkezpen-testuaren ondoan argazkia itsats dezan.

Haur bakoitzak orria prestatzen duenean, liburuan agertzen den prozesuari jarraituz, beste ikastola bateko haurrei bidaliko diegu bilduma.

#### **75. Buelako komikia**

*Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian*

*Materiala: Liburua, 31. orrialdea*

Ikasturte honetan zehar egingo ditugun bidaiei sarrera ematen dion orri hau aztertu eta komentatuko dugu.

#### **76. Txominek dio... Marik dio... Hitzen bidezko komunikaziorako joko kooperatiboa**

*Lan egiteko era: Talde handian*

Komikian ikusi dugun bezala, Maddalenen etxean badirudi adinak agintzen duela. Bueno, bada, jolas honetan ez da hori gertatzen; hemen, Txominek eta Marik agintzen baitute eta eurek agindutakoa bete beharko dugu.

Ikasle kopuru bera dituen bi talde egingo ditugu. Talde biak zutik jarrita, tartean distantzia utzirik, bi korro osatuko dituzte.

Talde bakoitzak animatzaile bat izango du. Talde batekoa Mari izango da eta beste taldekoa Txomin. Txotx eginez jakingo dugu animatzaile-papera nork egingo duen. Animatzaileak bere korroko ikasleek zer ekintza edo mugimendu egin behar dituzten aginduko du. Animatzaileak honela esango du, "Txominek dio: hiru salto emateko" edo "Marik dio: alboko laguna besarkatzeko", eta Txominen korroko ikasleek hiru salto eman beharko dituzte eta Mariren korrokoek laguna besarkatu beharko dute. Baina animatzaileak agindua emango balu aldezturik "Txominek dio" edo "Marik dio" formula aipatu gabe, agindua betetzen duen ikasleak beste korrokoan joan beharko du, hau da, Txominen korrokoan egon bada, Marirenera joan beharko du, eta alderantziz.

Joko honetan ez da inor eliminatzen, talde batetik bestera pasa bakarrik egingo dira haurrak.

Joko hau lehenengo aldiz egiterakoan, komenigarria litzateke irakasleak elkarrekintza baikorra estimulatzeko dituzten ekintzak egitea proposatzea ikasleei (ondokoari eskua eman, edo besarkatu, edo barre egin, edo ondokoaren eskuekin txalo egin, edo katu baten antzera ibili eta haren soinua egin...).

Bukatzerakoan, zailtasunei, gozamenari, ezbeharrei eta abarri buruz hitz egingo dugu, hau da, esperientziei eta sentimenduei buruz; beste era batera esanda, bizipenei buruz.

#### **77. Abestia: Denboraren makina**

*Lan egiteko era: Talde handian*

*Materiala: CDa*

Maddalenek eta Ferminen denboraren makina prestatzeari ekin dioten honetan, ez legoke gaizki abestia gogoratzea.

## **78. Sintesia**

*Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka*

*Materiala: Liburua, 32. orrialdea*

Lehen unitate honetan zer ikusi eta ikasi dugun guztion artean hitzez adierazteko, liburua hartu eta, orriz orri, alderdi nagusienak, politenak, itsusienak aipa ditzatela eskatuko diegu. Ondoren, inora begiratu gabe, bakoitzaren familiaren zuhaitz genealogikoa egin beharko dute.